



BERGARA

Udal aldizkaria | 09 zenbakia | 2009ko abendua

UDAL ARTXIBOAK SINATUA >09

Escuela del hogar

ONDAREA >11

Mas de 1.000 visitantes en las excavaciones del Real Seminario

KULTURA >12

Herri merkataritza sustatu nahi da ikuspegi artistikotik

KIROLA >14

Datorren urteko kirol tasek ez dute igoyerarik izango



ELKARTEEN TXOKOA >08

**GORREN
GIZARTERATZE
ETA KOMUNIKAZIO
OZTOPOAK
GAINDITUZ**



Zenbaki honetan...

03 EDITORIALA

04 GAI NAGUSIA • Ekonomia arloa ■



06 HERRITARRAK KAZETARI • GALDERAK ■

07 OPOSIZIOAREN IKUSPUNTUA



08 GURE BERGARA

08 ELKARTEEN TXOKOA • Arangsi elkarte ■

09 UDAL ARTXIBOAK SINATUA • Escuela del hogar



10 UDALA

10 HIRIGINTZA

11 INGURUMENA / ONDAREA ■

12 KULTURA

13 GIZARTEA / EUSKARA

14 KIROLA

15 UDALBATZARRAK



BERGARAKO UDALA

San Martin Agirre plaza, 1
20570 Bergara (Gipuzkoa)
Tel: 943 77 91 00
Faxa: 943 77 91 63

www.bergara.net

TELEFONO INTERESGARRIAK

Agorrosin	943 77 70 95	Kanposantua	943 76 27 81
Alkatetza	943 77 91 01	Kirolak	943 77 91 67
Angiozarreko liburutegia	943 76 16 19	Kontuhartzailletza-Hazienda	943 77 91 64
Artxiboa	943 77 91 32	Kultura	943 77 91 58
Enpresa komitea	943 77 91 73	Labegaraietako kiroldegia	943 76 56 41
Euskaltegia	943 76 44 53	Liburutegia/Kultura Etxea	943 77 91 62
Euskara	943 77 91 66	Mizpirualde egoitza	943 76 13 68
Gizarte Ongizatea	943 77 91 65	Obrak eta Zerbitzuak/Udal bilategia	943 77 91 52
Hirigintza eta ingurumena	943 77 91 68	Ondare artistikoa/museologoa	943 77 91 62
Idazkaritza	943 77 91 00	Osintxuko liburutegia	943 76 23 76
Igerilekuak	943 76 20 51	Udaltzaingoa	943 77 91 06
Informatika	943 77 91 37		



Aniztasunean hezi eta bizi

UDAL GOBERNU TALDEA



Bergarako Udalak, Anitzak ekimenarekin elkarlanean, aniztasuna eta elkarbizitzari buruzko eztabaida prozesu parte hartzaileari ekin zion 2009ko otsailean. Harrezkero, hainbat lan egin dira, batzuk kanpora begira, eta beste batzuk barnera begira. Hasieran, diagnosi kuantitatibo batekin zen, herriko errealitatearen berri izateko. Diagnosi horrek argi erakusten du herrian badagoela aniztasuna. Eta horrek eragin zuzena du gizarteko arlo guztietan: hizkuntza, hezkuntza, ekonomia, bertako izatearen sentimendua...

Helburu nagusia da udalaren eta herritarren artean eztabaidarako gune bat sortzea, non arlo desberdinak eztabaidatu nahi diren: sozio ekonomia, hizkuntza, kultura, hezkuntza, eskubide sozial eta politikoak, eta internazionalismoa. Herritarren parte hartzea, elkarrenganako errespetuan eta onarpenean dago oinarrituta. Gune hau jadanik sortua dago, eta proiektua hasi

“

Aniztasuna eta elkarbizitzari buruzko eztabaida prozesuaren ondorioen berri izateko urtarilaren 18tik 23ra aniztasun astea antolatu da

”

zenetik gaurdaino, hainbat elkar-gune egin dituzte.

Denboratarte honetan, herriko arlo desberdinetako eragileekin egon dira; ikastetxeekin, kultura taldeekin, sindikatuarekin, aisialdi taldeekin... Horrez gain, inolako taldetan antolatuta ez dauden jatorri ezberdineko pertsonekin ere egon dira. Pertsona horiei guztiei, proiektua bera eta diagnosiaren emaitzak aurkezteaz gain, elkarriketa sakonak ere egin dizkiete, bakoitzak gaitzaren inguruan dituen pertzepzio eta iritzia zehaztzeko.

Gainera, herriko hainbat eragile eta pertsona osaturiko bost elkargune egin dira orain arte. Lehenengo hiruetan, proiektuaren aurkezpena egin zen eta diagnosiaren inguruan eztabaidatu zuten. Ikasturte berriarekin batera, prozesuari berriz ekin, eta sozio ekonomia buruz luze eztabaidatu zuten hainbat herritarrekin elkargunean. Sindikatuek gain, beste hainbat eragile eta pertsona ere parte hartu zuten, eta arlo horretan ditugun erron-

kak zehaztu ziren.

Azken elkargunea, abenduaren 10ean egin zuten, eta hizkuntza, kultura eta hezkuntzari buruz eztabaidatu zuten. Elkarguneen helburua, aniztasuna benetan aberasgarri izan dadin, arlo bakoitzean dauden elementu problematiko eta aberasgarriak zehaztu, eta denon artean, erronkak adostea da. Elementu horiek zehazteak, beraien iritziz, konpromiso sozial eta instituzionalak hartzea dakar. Anitzak ekimenekoek eginiko konpromiso horiekin bat egiten du Udal Gobernuak, eta herriko pertsona ororen eskubide politiko, sozial, ekonomiko, linguistiko eta kulturalak bermatzera bideratu dira.

Oro har prozesuaren ondorioak ezagutzeko aukera izango duzue urtarilaren 18tik 23ra antolatuko den aniztasun astean. Egun horietan, herriko eragile desberdinak antolatutako tailerrak egongo dira; herri bazkaria, ikuskizunak... bergararrok aukera ezin hobe izango dugu bertan parte hartzeko.

MOTZEAN

Los continuos recortes presupuestarios que la Diputación Foral destina a los municipios y la profunda crisis, repercutirán en los presupuestos municipales

En el último número de este año, los responsables del Ayuntamiento de Bergara responden sobre la elaboración de los presupuestos municipales del próximo año. Y es que los continuos recortes que la Diputación Foral destina a los municipios y la profunda crisis que actualmente vivimos, tienen repercusión

también en los presupuestos municipales. Además de eso, en las páginas de la revista municipal, los ciudadanos podrán conocer de cerca la Asociación de Familias de Personas Sordas de Guipúzcoa en Bergara. Aransgui lleva más de 40 años trabajando por mejorar la calidad de vida de las personas sor-

das y sus familiares.

En la sección municipal, se dan a conocer las últimas noticias relacionadas con los diferentes ámbitos municipales. Entre otras, el ayuntamiento ha querido destacar el servicio que ofrece Zabalotegi a los bergarreses, recogiendo y valorando sus datos anuales.



AITOR GOITI
CONCEJAL DE HACIENDA



DE LO QUE SE RECAUDA VÍA IMPUESTOS, SÓLO EL 10% REVIERTE EN BERGARA

Los continuos recortes presupuestarios que la Diputación Foral destina a los municipios (4 millones de euros menos desde 2008 en el caso de Bergara) y la profunda crisis que estamos viviendo van a tener su repercusión en los presupuestos municipales del próximo año. La política fiscal de la Diputación afecta a la capacidad financiera de los Ayuntamientos. “Nos encontramos en una situación crítica”, asegura Aitor Goiti, Concejal de Hacienda. En 2010 Bergara va a recibir unos 9 millones de euros del Fondo Foral, pero sin la seguridad de tener que devolver o no a finales de año. Por todo ello, el Ayuntamiento se verá en la obligación de reducir un 20% las ayudas y subvenciones a las asociaciones deportivas, culturales y sociales del municipio.

¿La actual política fiscal es un problema para los Ayuntamientos. No se revierte en Bergara el dinero de los bergarese?
Se habla de la crisis económi-

ca, pero la actual política fiscal nos hace tanto o más daño que la crisis. De lo que se recauda vía impuestos a los bergarese, sólo el 10% revierte en Bergara.

El 63% es para el Gobierno Vasco, a la Diputación va el 15% y el 12% es para el Estado vía cupo. Es así de crudo. Además, los Ayuntamientos soportamos servicios que no nos corresponden y que dependen de Diputación o Gobierno Vasco, y que históricamente estamos ofreciendo nosotros.

¿En la mayoría de los Ayuntamientos se habla de endeuda-

miento. El Ayuntamiento de Bergara está valorando la posibilidad de endeudarse?

Los servicios deben seguir funcionando y no tenemos que tener ningún miedo a endeudarnos, siempre cumpliendo la ley de estabilidad presupuestaria, porque habrá que seguir ofreciendo servicios sociales, el servicio de agua, basuras... Endeudarse no debe ser ningún problema. Nosotros hemos reducido el

“Todos los partidos políticos salvo el PSE renunciará a la asignación económica que reciben, para con ese dinero, unos 25 mil euros, hacer un estudio sobre las viviendas vacías”



“Se habla de la crisis económica, pero la actual política fiscal nos hace tanto o más daño que la crisis. De lo que se recauda vía impuestos a los bergarese, sólo el 10% revierte en Bergara”

endeudamiento del Ayuntamiento en dos puntos, del 13% al 11%. Pero ahora no tenemos capacidad para ingresar. En los últimos años las inversiones han dependido directamente de la venta de terrenos, y nos hemos aprovechado del boom inmobiliario. Ahora no hay mercado para la venta, y eso también lo notan los ayuntamientos.

¿Con estas previsiones qué tipo de inversiones podrá realizar el Ayuntamiento de Bergara?

Bergara tiene dos déficit históricos. Los aparcamientos y la sala multifunciones para uso cultural. El aparcamiento del Seminario lo tenemos que hacer como sea, con inversión privada o pública, pero hay que hacerlo. La sala de actos, el tema del Seminario, también habrá que

trabajarlo. El problema va a ser la falta de dinero para hacer frente a estos proyectos. Tampoco podemos descuidar las inversiones en los barrios.

¿Cómo pretende reducir los gastos el Ayuntamiento de Bergara?

Queremos reducir el gasto corriente de cara al año que viene y queremos reducir los gastos de mantenimiento como el de el alumbrado, y hemos recuperado el servicio del agua, que estaba privatizado. En este sentido hemos mejorado el servicio y hemos reducido costes. Estamos cambiando las bombillas para que el consumo sea menor. Pero sin duda, la medida más impopular va a ser la que afecte directamente a los ciudadanos. Y es que, las ayudas y



Las tasas municipales de 2010 no sufrirán ninguna subida.

subvenciones a los grupos y asociaciones deportivas, culturales y sociales también se va a rebajar en un 20%, en la misma proporción que la Diputación va a reducir su aportación al Ayuntamiento de Bergara.

¿Tanto Gobierno y oposición rema en la misma dirección en este tema?

La oposición también está preocupada ante la nueva situación. En la Comisión de Hacienda se ha tratado el tema en varias ocasiones y vamos a tomar medidas. Entre esas medidas, vamos a renunciar a la asignación económica que recibe cada partido político en los próximos dos meses, para con ese dinero, unos 25 mil euros, hacer un estudio sobre las casas vacías y un posible impuesto sobre ellas. Pero sólo digo que es parte de la oposición la que ha tomado parte en esta iniciativa, ya que el PSE se ha negado a que sus dietas

vayan a ese fondo para estudiar el tema de las viviendas.

Has hablado de un impuesto sobre casas vacías. ¿Cuáles son las tasas actuales, y cuáles las que se pretenden impulsar en un futuro?

Se acaban de aprobar las ordenanzas fiscales. Se dividen en tres tipos, los impuestos (obligatorios a pagar y que no revierten en ningún servicio; impuestos de vehículos,...), en 2010 congelaremos todos los impuestos, excepto el de bienes inmuebles, ya que acordamos un 4% de subida. Las tasas municipales son aquellos servicios cedidos al Ayuntamiento. El ciudadano recibe un servicio por dichas tasas: basura, agua,... y por último están los servicios públicos, que son aquellos que el Ayuntamiento ofrece algo más barato: servicio domiciliario, piscinas municipales... Hemos congelado las tasas para que la gente no soporte dicha diferencia.





GALDERAK

Autobus geltokiko komunak itxita egoten dira gehienetan. Zergatik?

Autobus geltokiko komunaren atea automatikoa da eta zerbait gaizki dagoenean berez itxi egiten da. Ondorioz, barruan zerbait falta denean edo arazoak sortzen direnean, atea automatikoki itxi egiten da. Bergarako Udalak sistema automatikoa kendu egin du horiekiditeko eta orain atea eskuz itxi eta zabaltzeko ahal izango da. Horrekin batera, egunero komuna garbitzeko ardura ere hartu du udalak.

Enara Minguez /
Gobernazio eta Kultura



Asteburuetan Bergara erdialdeko kale asko oso zikin egoten dira eta Irala kalean kristal asko egoten dira. Hori konpontzeko zerbait egiteko asmoa al du udalak?

Kale garbiketaren zerbitzua aztertzeko inkesta bat pasatu dugu hurrengo hilabeteotan, zerbitzu horren gaineko bergararren iritzia zein den jakiteko. Egia da askotan kaleak ez direla egoten guk nahi bezain garbi, baina Irala kaleko kristalei dagokionez, garbitzeaz gain, herritarrek konturatu behar dira kalean ezin dela ibili edalontziak edo botilak lagatzen. Jokabide horrekin zaila da gero kaleak garbi mantentzea.


Enara Minguez /
Gobernazio eta Kultura
zinegotzia



Galderak jasotzeko:

aldizkaria@bergara.net helbidean edo udaletxe atariko postontzian.

Ez da komeni 200 karaktere baino gehiagoko galderak bidaltzea. Galdera guztientzat lekurik ez bada, hurrengo zenbakirako gordeko dira.



Bergarako Udal Gobernuaren balorazioa 2009an

Lehendabizi esan nahi dugu 2009 urtea bereziki gogorra izan dela bergararontzat, krisiak indar handiarekin astindu baikaitu. Egoera horren aurrean, gure elkartasunik beroena momentu latzak pasatzen ari diren pertsona guztiei. Etorbizuna egoera honen aurrean hartuko ditugunekintzen menpe egongo da neurri handi batean.

Ez dago higikortasun planik, ez eta aparkalekuen arazo larri-riarten bidea emango dion planik ere. Korporazio honek harturiko erabakiek, oztopatu besterik ez dute egin etorkizunera begira arazo hauei eman ahal zaizkien irtenbideak. UNEDen egungo kokapena eta Arrizuriaga jauregiaren arteko trukea, herriarentzat galera handia dela iruditzen zaigu. Izan ere, gaur egungo Arrizuriaga jauregia zaharberrituz gero, Bergarako kultura beharrei edo ia guztiei erantzuteko gai izango litzateke; udal liburutegia, kultura etxea eta, kultura talde guztientzako lokalak, denak batera eta inguru ezin hobe batean kokatuta. Beste alde batetik, UNEDek asebestarik ditu bere beharrak egungo tokian. Azaldutako guztiari, termino homogeneotako konparazio bat eginda, 3 milioi euroko galera gehitu behar zaio. Azkenik, zertarako erabiliko dira gaur egungo UNEDeko lokalak?

Gaur egungo Mizpirualde egoitzaren gunean handitzeko eta hobekuntzak egiteko plan bat bazegoen, 5 milioi euro ingurukoa, non zenbatekoaren %75 diputazioak finantzatuko luke. Gai hau garrantzi handikoa iruditzen zaigu, galdu duguna galdu dugula uste baitugu eta seguruenez urte askotan, beste plan-

teamendu maximalistarekin ez dela egingo.

Zerbitzu batzuk udaleko bilakatzeko akats larria dela iruditzen zaigu. Lehendik zerbitzu horientzat eskaintza bat badagoelako eta bere kudeaketan espezialistak diren erakundeak ere bai. Adibidez, ur zerbitzuak udaleko bihurtzea, ziur baikaude zerbitzuaren gastua gehitzea ekarriko duela eta gastu gehitze hau ez dela bere kalitatearen gehikuntzarekin bat etorriko.

Arlo ekonomikoari dagokionez, 2009ko aurrekontuak Udal Gobernuak botoekin soilik onartu ziren. Aurrekontu ez-egiazkoak ziren, gauzatzeko ezinezkoak ziren kontu sailekin. Orduan horrela ziren, eta denborak horrela demostratu du. Hala ere, larriena pertsona saileko gastuaren joera da, azken bi urteotan %20 inguruko hazkundera izan duena.

Lehenago esan bezala, ez dira ezkortasunerako momentuak. Bergarak erakutsi du egokitze gaitasun handia duela eta ez dugu inolako zalantzarik zailtasun guztiak gainditzea lortuko dugula. Bergarako herri guztiari 2010 zorionsua opatzu agurtzen gara.

EAJ-PNVko udal taldea



Pedimos que no reduzcan el gasto social

Los que conformamos el grupo municipal del partido socialista de Euzkadi-Euskadiko Ezkerra estamos especialmente preocupados por la crisis económica que está sacudiendo nuestra localidad (Poreso, pedimos al Gobierno Municipal que no reduzca el gasto social, tal y como ha hecho en un 25-30%). Los bergarese y bergaresas no llegan a fin de mes, y debemos estar con ellos. Más allá de infraestructuras deporti-

vas, culturales o de otro tipo, este Ayuntamiento debe dar ayudas a los ciudadanos más necesitados. No tenemos ninguna relación con el Gobierno Municipal, porque simplemente nos ignoran, y sabemos que con respecto a los asuntos sociales están haciendo lo que pueden, sabemos de su buena voluntad, pero con eso no es suficiente. La economía global es la que es, pero creemos sinceramente que la gestión podría mejorar. Asimismo, exigimos al actual Gobierno que solucione cuanto antes el problema y la falta de espacio de la escuela pública. Es obligación de este Ayuntamiento y de sus gestores dar una solución inmediata a ese problema. Ya han pasado dos años desde que el actual Gobierno Municipal llegó a la alcaldía y aún quedan muchas cosas por solucionar. La falta de aparcamientos es uno de los graves problemas que sufre Bergara, y con las ayudas que ha recibido el Ayuntamiento por parte del Gobierno Central debe hacer frente a este tipo de proyectos. El PSE de Bergara apuesta por los aparcamientos de Zubiaurre. Estamos a la expectativa pero esperamos que comiencen con las obras. Así como, con el proyecto de aparcamientos proyectado o diseñado para el Seminario. Con todo, pedimos al Ayuntamiento que afronte de una vez por todas los verdaderos problemas de nuestro pueblo.

La Agrupación Socialista del PSE-EE de Bergara



Bukatu zaigu 2009a, krisiaren urtea.

Lantegi batzuk itxi dira, langile asko kalean, familia asko larri... Krisia udalera ere iritsi da.

Proiektu asko bertan behera utzita, beste zerbitzu asko murriztuta, eta hainbat dirulaguntza kendu dira. Okerrena, ordea, ez da hori. Momentu honetan elkar ulertu beharrean, ezadostasuna da nagusi. Urtea ika-mikatan igaro dugu, eta Euskal Herriaren eta Bergararen etorkizunari ez dio horrek mesede egiten. Denok jarri behar dugu gure esku dagoena, denon artean egoera honetatik irteteko, politikoek, sindikatuak, banketxeak, enpresek, langileak...

Zaila da, horrelako egoeratan, aurrekontuak egokitzea, zein proiektu egin erabakitzea, zein dirulaguntza mantendu eta zein murriztu erabakitzea, edo larri dagoen familiar laguntza ukatzea, baina egoera honetan denok gauden sartuta eta denok elkarrekin egin beharko genioke aurre egoerari.

Momentu hau da erakunde publikoek lan egiteko ordua, kontratazioak bultzatuz, eta beldurra eduki gabe proiektu ezberdinak aurrera eramanez, beti ere zentzuarekin. Udal honek ausardia-rekin jokatu du, hainbat proiektutan, herriaren beharrak asetzeko helburuarekin. Badaude proiektu batzuk (seminarioko aparkalekua adibidez), denon indarrak batuz aurrera atera beharko genituzkeenak.

Eta orain, 2010ean, aurrekontuak %20 egingo du behera. Oraindik eta zailago, horregatik eskatzen dut berriro be, elkar ulertzea eta elkarlana, guztion artean aurrera egiteko. Gabon zorionsuak eta urte berri on!

Lauri Askargorta Irizar
EA ko zinegotzia

Oharra:

Aurreko zenbakian komunikazio arazoak medio, iritzi artikulua bat baimenik gabe kaleratu genuen. Oier Goiko Rockeko kideak sinatutako artikulua.



ELKARTEEN TXOKOA

ARANSKI ELKARTEA

Gorren gizarteratze eta komunikazio oztupoak gaindituz



Aransgi elkarteko Bergarako egoitza.

Haur gorren familia talde baten ekimenez, 1967. urtean sortu zen Aransgi, Gipuzkoako Pertsona Gorren Familien Elkarte. Egoitza nagusia Donostian dute, Intxaurren. Debagoieneko gorren senitartekoei desplazamendu ugari egin behar zituztela ikusirik, Bergaran jarri zuten bigarren egoitza 1973. urtean. Hirugarren zentroa, berriz, Tolosan dago.

GORREN BIZI KALITATEA

Gipuzkoako gor guztien bizi kalitatea hobetzeko eta gorrieriak pertsonaren eguneroko bizitzan eragiten dituen zailtasunak arintzeko lan egiten du Aransgik. Alor mediko eta psikologikoaz gain, hezkuntza, lan, gizarte eta familia alorrez ere arduratzen dira; pertsona gorrei eta haien senitartekoei arreta orokorra eskainiz. Hileko kuota txikia ordain-

tzen duten 300-400 bat bazkide ditu elkarteak. Horrez gain, senitarteko edo lagun gorriek ez duten hainbat pertsona ere maiz kolaboratzen dute elkartearekin, 14-15 lagun. Bestetik, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Departamentutik diru-laguntza jasotzen du Aransgik, baita Foru Aldundiaren Gizarte-Zerbitzu departamentutik ere.

KOMUNIKAZIO OZTOPOAK

Aldatu egiten dira denborarekin pertsona gorren beharrak. Gizarteak eta teknologia berriek aurrera egiten dutelako edota gorra-zen bizimodua aldatu delako. Adibidez, seme-alabak izatean, lan munduan murgiltzean edota bikote harremanak hastean. Horregatik, zabaldu egin da azken urteotan elkartearen lan eremua. Helburua, ordea, berdina da hasieratik: pertsona



Guillermo Azkarate, elkarteko koordinatzaile orokorra.

ASOCIACIÓN PROFESIONAL

La asociación Aransgi trabaja por y para que las personas sordas de Guipúzcoa se integren en la sociedad, ofreciendo servicio tanto a las personas que padecen la sordera, como a sus familiares. Para Guillermo Azkarate, coordinador general de Aransgi, la sociedad necesita mayor conocimiento y se debería promover más la responsabilidad social. "En los últimos años se ha avanzado en este aspecto, pero hay que abrirse hacia otro tipo de ámbitos para seguir mejorando más", explica Azkarate.

Gorrek esan nahi dutena adierazteko interpretatzaileak behar dira, gutxienez, toki publikoetan

gorren gizarteratzea bultzatzea. Alabaina, informazioaren gizar- te honetan gorrek dituzten komunikazio oztupoak hobetzea litzateke Aransgiren egungo erronka; izan ere, interpretatzaileak behar dira.

Oztupo arkitektonikoak errazago antzeman eta konpontzen dira, baina komunikazio arloan dituzte uneotan oztupo gehien pertsona gorrek, dio Guillermo Azkarate Aransgi elkarteko koordinatzaile orokorrak. Espainiako hiriburu gehienek suspentitu egiten dute gorren egokitza-

Hileko kuota txikia ordaintzen duten 300-400 bat bazkide ditu elkarteak

penei dagokienez. Are gehiago, eraikin publikoetan (udaletxeetan edo osasun zentroetan) ematen dira arazo gehien. "Gorrek esan nahi dutena adierazteko interpretatzaileak behar dira, gutxienez, toki publikoetan. Eta hori ez da ematen". Oso gutxitan hartzen dira kontuan gorren beharrak eta eskubideak, baita gizartearen parte hartzea ere, azaltzen du Azkaratek. Elkartearen ibilbideari balorazio positiboa egiten dio Azkaratek, hala ere, "urrats gehiago eman daitezke gizarte arduratsua bultzat-



UDAL ARTXIBOAK SINATUA

ESCUELA DEL HOGAR

‘Escuela del hogar’ etxekoandreak formatzeko unibertsitatea

Zorionez, asko aldatu dira garaiak, batez ere sexuen arteko bereizketei dagokienez. Dena dela, atzera begiratuz gero, XIX. mende hasierara eginez gero, aurkitu dezakegu oso bestelako pentsatzeko era erakusten duten hamaika adibide. Horietako bat da *Escuela del Hogar*. Bergaran 1927an jarri zen martxan *Escuela del Hogar* izeneko eskola.

Gauregun erabat sexista iruditzen bazaigu ere, eskolaren helburua etxekoandre finak eta ganorazkoak prestatzea zen. Argi dago, beraz, etxeko lanak emakumearen betebeharra zirela XIX. mende hasieran. Baina ez bakarra; aurrekoari, batzuetan behintzat, lantegietan lan egitea gehitu behar zitzaion eta baita umeak haztea ere.

Hala eta guztiz ere, ezin ditugu orduko jokaera eta pentsatzeko era gaurko ikuspegiarekin aztertu. Seguru aski, emakumearen heziketarako zegoen aukera bakarrenetakoa izango zen. Argazkietan ikus daitekeen bezala hiru arlo erakusten zitzairen ikasleei; jostura eta pasartzea, arropa plantxatzea eta sukaldaritza.

Begarako emakume askok jaso zituen ikasgaiak *Escuela del Hogar*-en. Argazkian ageri dira horietako asko.



Begarako Udal Artxiboko bilduma (Luis M^a Lonbide)). Egilea: ezezaguna. 1928.


Begaran 1927an jarri zen martxan Escuela del Hogar izeneko eskola



Begarako Udal Artxiboko bilduma (M^a Teresa Bergara). Egilea: (Castrillo). 1930 inguru.

DATU BERRIAK BERGARAKO UDAL ARTXIBOAN

Begarako Udal Artxibotik gogorazten diegu herritarrei www.begarakoartxiboa.net/web gunean datu berriak gehitu ditugula eta norbaitek historiaren gaineko ikerketaren bat egiteko asmoa badu, udal artxiboa laguntzeko prest egon daitekeela.



SERAFIN ESNAOLAREN ARGAZKI ERASKUSKETA ARRAKASTATSUA

Begarako Udal Artxiboak bulztatuta eta Miguel Angel Elkoroberezibar herritarrek Aroztegi aretoan antolatutako argazki erakusketak sekulako arrakasta izan du; izan ere, 3.000 pertsona baino gehiago gerturatu da erakusketa ikustera. Serafin

Esnaolaren bizitzaren gainean argitaratutako liburua ere oso ondo saldu da. Horrexegatik guztiagatik, Begarako Udalak eskerrak eman nahi die herritar guztiei.



HIRIGINTZA

SAN ANTONIO

El Ayuntamiento derribará los números 7 y 9 de la calle San Miguel



Dentro del plan de regeneración que el consistorio de Bergara está llevando a cabo en el barrio de San Antonio, en enero se procederá al derribo de los números 7 y 9 de la calle San Miguel de Aritzeta. Asimismo, durante el próximo mes el Ayuntamiento comprará los números 4, 6 y 8 de San Antonio.

Las viviendas a derribar se encuentran a la derecha de la carretera camino a Martoko, en una de las riberas del Deba, en frente del restaurante Zumelaga. Las escrituras de compra de las viviendas se han

firmado en diciembre y las escavadoras entrarán en enero. Y es que, el Ayuntamiento de Bergara quiere acelerar el proceso y ya ha tapiado el edificio.

FUTUROS APARCAMIENTOS

Debido a los enormes problemas de aparcamiento existentes en Bergara, el Gobierno Municipal estudia la posibilidad de construir aparcamientos en dicho solar de la calle San Miguel. Así las cosas, y gracias a esta nueva actuación, la regeneración de San Antonio dará un nuevo paso

adelante. Hasta la fecha, se ha adecuado la carretera, se ha realizado un parque y a partir del año que viene se derruirán todas las casas existentes entre la rotonda y Martoko.

PROYECTO ANTIGUO

El proyecto viene desde muy lejos, pero el Ayuntamiento ha comprado las primeras casas en 2009. Durante este año ha comprado los números 2 y 10 de San Antonio, y las de San Miguel. Además, en enero procederá a la compra de los números 4, 6 y 8 de San Antonio.

APARKALEKUAK

Martoko gainaldean aparkalekuak egin nahi ditu Bergarako Udalak

Bergarako Udalak lursail bat zesioan hartu du Martoko gainaldean. San Antoniotik joanez gero ezkerretara dago lurzorua eta jabetza pribatukoa da. Jabeek etxebizitzak egin nahi zituzten bertan, baina oraindik ez dituztenez egingo, Bergarako Udalak lurren zesioa eskatu die eta apar-

kalekuak egingo ditu bertan.

UDAL ARKITEKTOAREN PROIEKTUA

Udal arkitektoak dagoeneko egin du proiektua eta 27 auto aparkatzeko lekua aurreikusten du. Horietako leku bat ezgaituentzat izango da.

Dena dela, arazoa proiektuaren finantzazioa da une honetan. Udal Gobernuak 2010eko aurrekontuetan sartu nahi du egitasmoa, baina, Agurne Barruso alkateak aditzera eman digunez, "ez da erraza izango proiektua finantzatzea, datorren urtean diru nekez lortuko baitugu udalean".



PATRIMONIO

Mas de 1.000 visitantes en las excavaciones arqueológicas del Real Seminario



La primera fase de las excavaciones arqueológicas que se están llevando a cabo en el Real Seminario de Bergara concluyeron el pasado tres de noviembre. Ahora, los investigadores están analizando los resultados de los trabajos realizados en dichas excavaciones. El Ayuntamiento, junto con la Diputación Foral de Gipuzkoa, pre-

tende comenzar con la segunda fase del proyecto, una vez que los investigadores elaboren el primer documento y recomienden su puesta en marcha. De no producirse dicha recomendación, no se acometerá la segunda fase.

RESULTADOS

Según hemos podido saber, la empre-

sa Ereiten, responsable de los trabajos de investigación, ha elaborado un documento que recoge las principales conclusiones de esta primera fase del trabajo. Gracias a las labores de excavación realizadas en la iglesia se han encontrado restos humanos en las tumbas de los Jesuitas. Asimismo, también se han encontrado restos de las ropas que estos vestían, unos zapatos con sus cordones o ataduras.

Respecto a los restos de la muralla que se han encontrado tras la planta de la iglesia, los responsables de Ereiten han descartado que pertenezcan a la muralla medieval de la villa de Bergara. Las excavaciones han causado gran interés entre los escolares y entre muchos particulares. En total, 236 particulares han acudido a visitarlas, y 677 escolares han tomado parte en las visitas didácticas especialmente diseñadas para ellos. Por último, cabe destacar, que se ha realizado un video sobre los trabajos.

LABURRAK

Bergarako fauna eta flora aztergai

Bergarako Agenda 21eko Ekintza Planaren egitasmoekin jarraituz, udalak herriko faunaren gaineko azterlanak adjudikatzen ari da. Dagoeneko zenbait lan eginak daude, bestak beste; Bergarako landaretza eta paisaiaren azterlanari dagokiona bata, eta bestea, mikro eta makrougaztunena. Horretaz gain, Bergarako Udalak beste bi ikerketa egingo ditu 2010ean. Batetik, herriko hegaztien inbentarioa egingo du, eta bestetik, saguzarrena. Inbentario horiek guztiak gehienbat mehatxuan dauden espezieak izango dituzte jomugan, eta galtzear dauden animalia horien populazioa mantentzeko eta hantitzeko kudeaketa neurriak proposatuko ditu, irizpide horiekin biziraupena bermatzeko.

ENERGIA

Udalak energia aurrezteko neurriak hartuko ditu eraikin publikoetan

Udalerriko energia kontsumoa murrizteko asmoz, eraikin publikoetan inbertsioak egingo ditu datozen hilabeteotan Bergarako Udalak, Energiaren Euskal Erakundearen (EEE-EVE) diru-laguntza batzuen bitartez. Batetik, udaletxean, Agorrosin kirol eremuan, Labegaraietako kirol gunean eta Udal pilotalekuan, komun eta aldageletako argiei jarriko dizkiete presentzia-detektagailu bidez pizten diren mekanismoak.

LED TEKNOLOGIA

Toki horietan argia piztuta gelditzen

da askotan, eta horrela argia denbora luzez piztuta egotea eragotziko da. Neurri horrekin kontsumoaren %20 aurreztea espero du udalak. Bestalde, LED teknologiadun lanparak ezarri dira, proba moduan udaletxean. LED teknologia argiterian dagoen azken berrikuntza da, energiaren %80 aurrezten laguntzen du eta bombilla arruntek baino hamar aldiz bizi-tza luzeagoa dute.

Neurri horiekin guztiekin, dirua aurrezteaz gainera, ingurumenarekin errespetuzko jarrera hartu nahi du Bergarako Udalak.



KULTURA

MERKATARITZA

Herri merkataritza sustatu nahi da ikuspegi artistikotik



Habian jarri dute egitasmo berria Xpressionsk!! taldeak, Bedelkarrek, Bergarako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak, herriko merkataritza sustatzeko helburuarekin. Hainbat ekitaldi antolatu dituzte urtarilaren 4ra bitartean eta proiektua Merkaguneren (merkatal gunek dinamizatze-ko programa) harira dator. Pasa den abenduaren 19an, jada, hainbat taldek girotu zituzten erdialdeko kaleak. Oinarrian, gizartearen dagoen eta ezagutzen ez den kultura aktiboa sustatu eta kaleratuko da.

Xpressionk taldearen jardura da

kultura sustatzea. Horretarako, guneak bilatzen dizkiete edozein arlotako artista ez profesionalei, beren lan artistikoak erakutsi ditzaten. Taldeekimen horren bitartez, jaialdi, ziklo, erakusketa eta hainbat zirkuitu egingura dira, besteak beste. Ikuslegoarentzat ekin-tza eskuragarriak antolatuko dituzte, gutxi erabiltzen diren espazioak erabiliz eta publikoarengandik ahalik eta gertuenen antolatuz; izan ere, horietako asko kalean eskainiko dituzte, doan. Aldi berean, mota askotako publikoa erakarri nahi dute, inolako alborapen geografikorik egin gabe.

ZABALOTEGI

Zabalotegi aretoak aukera berriak eskaini dizkio herriko kulturari

Aukera berriak eskaini dizkio Zabalotegik herriko kulturari urte honetan, eta herritarren erantzuna ez da nolanahikoa izan. Azpimarratzekoa da zine-klubak jasotako harrera ona, izan ere, helduentzako zinema saioek baino arrakasta handiagoa izan du. Guztira 330 lagun batu zituzte hamai-ka saiotan.

Helduentzako zinema-saioek, berriz, ez dute horrenbesteko onar-

penik izan eta lau alditan bertan behera utzi behar izan dute emanaldia, ikuslerik ez zegoelako. Umentzako antzerkiari dagokionez, pase bakarra antolatuko dute hemendik aurrera. Hiru emanaldi antolatu dira urte honetan eta horietako bakoitzarekin bi pase. Alabaina, bi paseetako jende kopurua batuta ere ez da gainditu aretoaren edukiera emanaldi horietako baten ere ez.

LABURRAK

Martzial Agirrerren gaineko liburuak argitaratuko da

Martzial Agirre eskultore bergararrari buruzko liburuak argitaratuko du ekainean Bergarako Udalak. Liburuaren izenburua izango da "Martzial Agirre 1840-1900" eta XIX. mendeko Euskal Herriko eskultorerik garrantzitsuenetarikoren biografia jasoko du. Argitalpenaren egileak Mikel Lertxundi eta Larraitz Arretxea ikerlariak izango dira. Agirrerren arte lanen azterketa sakona egiteaz gain, bere biografiaren datuak jasoko ditu liburuak, euskaraz eta gazteleraz.

Egileei dagokienez, Mikel Lertxundi Bilboko Arte Ederretako Museoko Arte gaietarako aholkularia da (bertako batzorde aholku emaileko kidea). Era berean, XIX. mendeko euskal pinturan aditua da eta gai honi buruzko bere doktore tesia amaitzen ari da. Larraitz Arretxea, berriz, Deustuko Unibertsitateko Donostiako kanpuseko Artearen Historia irakaslea da eta Aranzadi Zientzia elkartearen kidea. Euskal Arteari buruzko hainbat hitzaldi eman ditu eta artikuluz zientifikoak ditu argitaratuak, horietako asko, Eusko Ikaskuntzako ondare sailean.

Gabonetako jolas parkea

Urtarrilaren 2an, 3an eta 4an egingo dute Gabonetako Jolas Parkea eta, lehen aldiz, herrigunera ekarriko du udalak. Labegarieta kiroldegian egin izan da orain arte, baina kontutan izanda oso hotza dela eta urruti dagoela hainbat gurasoen kexak jaso dira azken urteotan. Pilotalekua kiroldegia baino txikiagoa dela ikusita, jolas parkearen erabilera adinaren arabera sailkatuko dute biguneez berdinetan. Hona hemen proposatutakoa:

- 3-9 urte bitartekoentzat, udal pilotalekuan.

11:00-13:00 / 17:00-20:00.

- 9-12 urte bitartekoentzat, berriz, igerilekuan.

11:00-13:00 / 17:00-19:00.



EUSKARA

El euskara como herramienta de cohesión y comunicación



Anitzak egitasmoak bi elkargune izan ditu eta horietako baten aztertu dituzte euskararen egoera, jatorrizko kulturen eta euskal kulturen arteko harremanak, eta ume zein gazteen eskolaratze prozesua. UEMAK eta Topaguneak abian jarritako egitasmoarekin bat egiten dute Anitzakek abian jarritako egitasmoaren zenbait helburuk.

UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea y Topagunea Euskara Elkarten Federazioa han puesto en marcha un proyecto dirigido a las personas que desconocen el euskara y que acaban de llegar a Euskal Herria. El programa pretende poner en valor nuestro idioma, impulsándolo como herramienta de comunicación y cohesión entre los ciudadanos vascos. Por el momento dicha iniciativa se pondrá en marcha en Berriatua (Bizkaia), Zestoia (Gipuzkoa) y Bergara.

CLASES Y TALLERES DE EUSKARA

Gracias a dicho programa todas aquellas personas que acaban de llegar a Bergara podrán tomar parte en las clases y talleres de euskara que se han organizado. Eso sí, los impulsores quieren dejar claro que no se trata de un plan de acogida para inmigrantes. El objetivo será dar a conocer el euskara como vínculo entre los vascos. Topagunea y UEMA quieren

construir lazos de comunicación entre euskaldunes y no euskaldunes, enseñándoles a querer el idioma. De esa manera, la participación quedará abierta a todo tipo de público, ya que la colaboración ciudadana será muy necesaria.

Por el momento, se trata de un programa piloto que se desarrollará hasta el 31 de agosto de 2010. Con todo ello, se valorará después el resultado, la participación y el éxito del programa, para poder trasladarlo a otros municipios de Euskal Herria. La organización quiere que sea un programa dinámico y divertido en el que la ciudadanía participe. Para ello, se han organizado diferentes actividades con el objetivo de eliminar posibles prejuicios que puedan existir hacia el idioma, así como; juegos, elaboración de pequeños diccionarios, paseos por el pueblo, taller de teatro, talleres de cocina y otras actividades relacionadas con la sensibilización del euskara.

LABURRAK

Bergaran aniztasunaren alde lanean

Bergarako Udalak Anitzak ekimenarekin elkarlanean, Aniztasunaren eta Bizikidetzaren gainean abiatutako prozesua azken txanpan dago. Azken hilabeteotan herriko eragileekin bitariko elkarrizketak burutu dituzte, eta horren ostean bi elkargune orokor egin dira. Bi elkargune horietan askotariko parte hartzea izan da, eta udaletik zein Anitzak ekimenetik oso ondo baloratu dute. Egitasmoaren hurrengo pausua izango da Aniztasunaren Astea ospatzea eta berau urtarrilaren 18tik 23ra bitartean egingo da.

Lehenengoan egoera sozio ekonomokoari buruzko eztabaida egin zen, eta parte hartzaileen artean hainbat sindikatuko ordezkariak, bazterkeria sozialaren kontra diharduten elkarteetako kideak, jatorri ezberdinetako bergararrak eta beste arlotan lan egiten duten Bergarako beste zenbait eragilek esku hartu zuten. Bigarrenean euskara eta beste hizkuntzak, kulturak eta hezkuntza landu zituzten, herriko eskoletako ordezkariak, kultura arloan diharduten elkarteak eta bertako zein herrialde ezberdinetatik etorritako herritarren arteko harremana ahalbidetuz.

Auzolan ekimena Bergaran

Bergarako Udalak enplegua sustatzeko hartutako neurrien artean urtariletik aurrera Auzolan ekimena abian jarriko da. Egitasmo horretan parte hartuko duten Bergarako zortzi langabetuk herri lanei eta hiriko altzarien konponketari buruzko formazioa jasotzeaz gain, udal langileekin batera lanean jardungo dute, ikasitakoa praktikan jarri. Ekimenak urtariletik uztaile arte iraungo du. Ekimenaren azken helburua da bertan parte hartzen duten pertsonen formazioa hobetzea, programa bukatutakoan lan merkatuan sartzeko aukera berriak eduki dezaten.

GIZART./EUSK.



KIROLA

KIROL TASAK

Datorren urteko kirol tasek ez dute igoerarik izango



Begarako Udalak ez du kirol abonua, ikastaro eta alokairuen tasen preziorik igoko datorren urtean. Hala ere, aldaketa garrantzitsu bat izango da kirol instalazioen erabiltzaileentzat. Izan ere, datorren urtean udalak bereiztu egingo ditu kirol zerbitzuen erabiltzaileak, eta horrela, herrian erroldatutakoek prezio bat ordainduko dute eta ez erroldatutakoek %50 gehiago.

Neurria hartzearen arrazoi nagusia udalak bere egiten dituen kosteen ordainketa da. Orain arte udalak erroldatu eta ez erroldatuen arteko bereizketarik ez du egin, eta zerbitzuen ordainketari zegokionak berdin ordaindu izan ditu. Dena dela,

salbuespenak ere izango dira, Kontua da, elgetarrek eta antzuolatarrek erroldatuen trataera izango dutela.

DEBAGOIENEN
KIROL TXARTELA

Debagoieneko Kirol txartelari dagokionez, debagoiendar norbanakoak soilik abonua hau atera ahal izango du erroldatuta dagoen Debagoieneko herrian. Begarako kirol abonua ateratzen dutenek, zerbitzu hori beren abonuan bertan izango dute txertatuta. Debagoieneko Txartelarekin eskura dituzten zerbitzuak Debagoieneko Mankomunitateak datorren urterako onartzen dituenak izango dira.

ORDUTEGIA

Kirol guneetan Gabonetako ordutegia

Urtea amaitzean dagoenean eta berria hasteko gertu, kirol instalazioetako ordutegietan aldaketak izango dira.

Kirol instalazioek honako ordutegia izango dute egun horietan.

Egunak	Ordutegia
Abenduaren 25ean Urtarrilaren 1ean eta 6an	itxita
Abenduaren 24an eta 31n Urtarrilaren 5ean	Jardunaldi erdia 09:00 - 14:00
Abenduaren 26an Urtarrilaren 2an eta 4an	09:00 - 14:00 16:00 - 20:00
Abenduaren 27an Urtarrilaren 3an	10:00-14:00 16:00-20:00

LABURRAK

3x3 saskibaloia torneo pilotalekuan

Begarako kirol elkarteak saskibaloia sailak, udalaren laguntzarekin, 3x3 saskibaloia txapelketa bat antolatuko du abenduaren 26 eta 27rako herriko udal pilotalekuan. Lehiaketan parte hartu ahal izango dute 8 eta 14 urte bitarteko gazteak. Larunbatean alebin mailakoak eta infantilak arituko dira, eta igandean gazte mailakoak. Izen emateak ikastola eta eskoletako koordinatzaileen bidez egingo dira.

Aurrerantzean Kirol Zerbitzua Agorrosin

Udal Kirol Zerbitzua udaletxetik Agorrosingo kirolgunera eraman dute. Ur zerbitzua udalak hartu du eta bere arreta bulegoa kirol zerbitzua zegoen udaletxeko beheko solairuan egongo da aurrerantzean. Horrela, Udal Kirol Zerbitzua Agorrosin Ekintza Guneak beheko solairuan dagoen bulegora eraman du udalak. Bulego ordutegia izango du, aste-gunetan zazpietatik ordu bietara. Harremanetan jartzeko, berriz, telefono zenbakia da 943 77 79 79 eta e-posta kirolak@bergara.net.

Eguberriko ur jolasak

Gabon egunetan hainbat ekintza izaten dira. Besteak beste, Udal Pilotalekuan Gabonetako Jolas Parkea antolatuko dute. Era berean, Agorrosin gunean, bederatzi urtetik gorakoentzat, ur jolasak antolatuko dira puzgarri eta jolas materialekin. Ur jolas parkera sartu ahal izateko abonua edo eguneko sarrera eduki beharko da. Jarduerak dinamizatzen begiraleak izango dira. Ur jolas parkea irekita egongo da urtarrilaren 2tik 4ra, goizeko hamaiketatik ordu batera eta arratsaldeko bostetatik zazpietara.



UDALBATZARRAK

Bergarako Udaleko osoko bilkuretan azken hilabeteotan hartu diren erabaki garrantzitsuenen zerrenda.

2009KO AZAROAREN 16KO UDALBATZARRA

- **TELEFONIA MUGIKORREKO ZERBITZUAK** ematen dituzten enpresek, udal jabari publikoaren erabilera pribatua eta aprobetxamendu berezia egiteagatik, izango dituzten tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala onartu zuten, aho batez.

2009KO AZAROAREN 26KO UDALBATZARRA

- **2010ERA KO ORDENANTZA FISKALAK** onartu zituzten behinik behin, PSEren aurkako botoekin eta gainontzeko guztien aldeko botoekin.

- **IBARGARAI 10EAN** garaje-plaza saltzeko baldintza-plegua onartu zuten, Udal Gobernuaren eta EAren aldeko botoekin eta PSE eta PNVren aurkako botoekin.

- **KONPONBIDEA, ELKARRIZKETA, EUSKAL HERRIA,** Hitza, Erabakia eta Bakea lelopean, PSEren aurkako botoekin eta gainontzeko zinegotzien aldeko botoekin, balioan panela jartzea onartu zuten.

- **MOZIOA ONARTU ZUEN UDALAK** polizia espainolak Ezker Abertzaleko hainbat kideren atxilotetak eta kartzelaratzek salatze, Gobernu zinegotzien aldeko botoekin, PSEren aurkako botoekin eta PNV eta EAko zinegotzien abstentzioarekin.

2009KO AZAROAREN 30EKO UDALBATZARRA

- **ZUBIETA 8AN** espaloari jarraipena emateko, Celestina Garitano andrearen egindako eskaintza onartu zen, aho batez.

- **ANGIOZAR AUZOKO** Zabaleta eta Galarraga baserrietara doan bide publikoa konpontzeko, proposamen tekniko eta baldintza administratiboaren plegua onartu zuten, aho batez.

- **MARTINEZ DE IRLA IKASTETXEAN** hainbat obra txiki egiteko adjudikazioak onartu zituzten, aho batez.

- **ANGIOZARKO ORBE-AUNDIA ETA KOROKA** baserrien arteko bide publikoa konpontzeko, proposamen tekniko eta baldintza administratiboaren plegua onartu zituzten, aho batez.

- **BASALGO AUZOKO** Eguren eta beste baserri batzuetara doan bide publikoan izandako luiziak konpontzeko, proposamen tekniko eta baldintza administratiboaren plegua onartu zituzten, aho batez.

- **MATXIATEGI KALEKO 18, 20, 22, ETA 30** atarietako lurjabeek egindako lursail banaren zesia onartu zuten, aho batez.

- **EHNE SINDIKATUAK** sektoreko geldialdi orokorraren gainean aurkeztutako mozioa onartu zuten, PSEko zinegotzien abstentzioarekin eta gainontzeko guztien aldeko botoekin.

- **FEILEN GAINEAN PSEK AURKEZTUTAKO BI MOZIO** aztertu zituzten. Ez zuten horietako bat bozkatu, ez zuelako proposamenik egiten; informazio gisa besterik ez zuten jaso. Bestea, berriz, ez zuten onartu. Aurkako botoa eman zuten PSEko zinegotziek ez beste guztiek.

- **EHGAMEK PRESERBATIBOEN ERABILERAREN** inguruan aurkeztutako mozioa onartu zuten, aho batez.

- **GAZTE MUGIMENDUAREN AURKAKO** espainiar estatutaren eraso errepresiboaren gaineko mozioa onartu zuten, Gobernu zinegotzien eta EAko zinegotziaren aldeko botoekin, PSEko zinegotzien aurkako botoekin eta EAjko zinegotzien abstentzioarekin.

UDALBATZARRAK

KULTURA AGENDA

ABENDUA > URTARRILA

ABENDUA

- > **ABENDUAK 21** / 11:00
Txistorra San Antonio auzoko txosnara hurbiltzen diren guztientzat
/ Gure Ametsa elkarteak antolatuta
- > **ABENDUAK 24** / 19:00
Olentzero eta Mari Domingi Bergarara iritsiko dira
- > **ABENDUAK 28** / 17:30
Xamarikoen kutxa majikoa DINDAIA taldearen eskutik / Zabalotegi aretoan. Sarrera: 3 euro (3-10 urteko haurrentzat)
- > **ABENDUAK 29**
• Kixka antzerki taldearen

ikuskizuna / Zabalotegi aretoan.
Sarrera: 3 euro (3-12 urteko haurrentzat) / 12:00
• Dj eta Reggae musika emanaldia / Munibe plazan / 20:00

- > **ABENDUAK 30**
• Marsel magoaren ikuskizuna / Zabalotegi aretoan. Sarrera 3 euro (5-14 urtekoentzat) / 17:30
• Kataia taldearen musika emanaldia / Simon Arrieta plazatik kalejiran Munibe plazara / 20:00

GABONETAKO ARTISAUTZA FERIA

Abenduaren 18tik 20ra

Munibe plazan.
Abenduaren 18an: 18:00 – 21:00
Abenduaren 19an eta 20an:
10:30 – 14:00 eta 17:00 – 20:00

ERAKUSKETAK

Aroztegi aretoa

> **BERGARAKO FILATELIA ETA
NUMISMATIKA ELKARTEAREN
ERAKUSKETA**
abenduaren 4tik 13ra

> **BEART ELKARTEKOEN
ERAKUSKETA**
abenduaren 18tik 27ra

ZINEA ZABALOTEGI ARETOAN

- **Abenduak 19:**
17:00 HOTEL PARA PERROS
19:30 / 22:30 DUPLICITY
- **Abenduak 20:**
17:00 HOTEL PARA PERROS
19:30 DUPLICITY
- **Abenduak 26:**
17:00 PONYO EN EL ACANTILADO
19:30 / 22:30 ANGELES Y DEMONIOS
- **Abenduak 27:**
17:00 PONYO EN EL ACANTILADO
19:30 ANGELES Y DEMONIOS

URTARRILA

- > **URTARRILAK 2,3,4**
• Puzgarriak udal Pilotalekuan / 3-9 urtekoentzat
/ 11:00-13:00 eta 17:00 – 20:00
• Uretako puzgarriak Igerilekuan / 9-12 urtekoentzat
/ 11:00-13:00 eta 17:00 – 19:00
- > **URTARRILAK 2, eta 4** / 18:00
Musika kontzertuak
/ Munibe plazan, D. Irala, Simon Arrieta eta Fraiskozuri plazan. Antolatzailea Bedelkar eta udala
- > **URTARRILAK 5**
• Bizarzurik erregeentzako kartak jasoko ditu
/ San Martin plazan / 17:00
• Txokolatea San Joxepe jubilatutik elkarrearen eskutik
/ San Martin plazan / 18:00
• Errege kabalgata / 19:00
• Gero, Kultur Etxean izena eman dutenek (14-18 urte bitartekoek) koadrila arteko tortilla lehiaketa. Ondoren Drindots taldearekin erromeria
- > **URTARRILAK 8** / 22:30
ProtAgonizo antzerki emanaldia

Ester Bellver aktorearekin
/ Zabalotegi aretoan. 5 euro

> **URTARRILAK 9** / 20:00
Prest gaude! Lakrikun antzerki taldearen emanaldia
/ Zabalotegi aretoan. 5 euro

> **URTARRILAK 10** / 19:00
Joseba Irazokiren "Euria ari du" diskoaren aurkezpena
/ Zabalotegi aretoan. 5 euro

> **URTARRILAK 18-24**
Aniztasun astea

> **URTARRILAK 23**
• Jolasleku ibiltaria
/ Osintxuko ludotekan / 17:00 .
Antolatzailea: Jardun euskara elkarte.
• Anitzak taldeak antolatuta ikuskizuna
/ Zabalotegi aretoan / Iluntzean

> **URTARRILAK 24**
• Udal Musika Bandaren kontzertua
/ Udal pilotalekuan / 12:30
• Haurrentzat txotxongilo antzerki

emanaldia Fase Rem Granadako Kaos Teatro taldearen eskutik
/ Zabalotegi aretoan
Sarrera 3 euro / 17:30

ERAKUSKETAK

Aroztegi aretoa
> **BERGARAKO TAILA ETA
ZERAMIKA ELKARTEAREN
ERAKUSKETA**
urtarrilak 1 - 10

Kultur etxea
> **ARATUSTEETAKO KARTEL
LEHIAKETAKO LANEN
ERAKUSKETA**
urtarrilak 22 – otsailak 19

ZINEA ZABALOTEGI ARETOAN

- **Urtarrilak 16:**
17:00 ICE AGE 3
19:30 / 22:30
NOCHE EN EL MUSEO 2
- **Urtarrilak 17:**
17:00 ICE AGE 3

19:30 NOCHE EN EL MUSEO 2

- **Urtarrilak 30:**
17:00 HANNAH MONTANA
19:30 / 22:30
RESACON EN LAS VEGAS

• **Urtarrilak 31:**
17:00 HANNAH MONTANA
19:30 RESACON EN LAS VEGAS

Sarrera: Umeen saioa: 2 euro
Helduen saioa: 3 euro
Leihatila saio bakoitza baino ordubate lehenago irekiko da.

ZINE KLUBA ZABALOTEGI ARETOAN / 20:00

- **Urtarrilak 14:** LEJANO
- **Urtarrilak 21:**
STRANGER THAN PARADISE
jatorrizko bertsioan
- **Urtarrilak 28:**
LA HAMACA PARAGUAYA

Sarrera: 2 euro
Leihatila saio bakoitza baino ordubate lehenago irekiko da.

ORDUTEGIAK:

- **ERAKUSKETAK** /
 - Aroztegi aretoa / Asteartetik ostiralera: 18:00-20:30 / Larunbatetan: 12:00-14:00 / 18:00-20:30 / Igandetan: 12:00-14:00
 - Kultura etxea / Astelehenetik ostiralera: 18:00-21:00 / Larunbatetan: 12:00-14:00

BERGARAKO UDALA
San Martin Agirre plaza, 1
20570 Bergara (Gipuzkoa)
Tel.: 943 77 91 00
Faxa: 943 77 91 63

www.bergara.net